

BALEIKE

GUKA



EMAKUME KIROLARIAK

BIDEA EGITEN

Zaintzaren diagnostikoa egiten ari gara. Bete galdetegia!



1. Bete galdetegia:
Eskaneatu QRa edo sartu
labur.eus/zumaiazaintza
webgunean

2. Zabaldu galdetegia!

**3. Zailtasunak dituztenei
galdetegia betetzeko
laguntza eskaini.**

elhuyar
ezagutz aldatzea

**Prebentzio
Mahaia**

Zumaiako
Udala

**ZUMAIA
BIZITZEKO
DA**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarririk egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaiako.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



BALEIKE 335

2023-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Korapiloa Aritz Mutiozabal <i>Irakurri, matte!</i> | 32 | Erretratua Intza Trula <i>Lurrak eta urak aztergai</i> |
| 6 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Arantxa Eizagirre: "Polita da oso haurrak aurrenekoz datozenean"</i> | 36 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Mikel Goitandia
<i>Ettxepe Zentro Sozialista</i> | 39 | Heziketa Mireia Centeno <i>Eskolaz kanpokoak</i> |
| 9 | Errematea Sara Iburguren
<i>Hemengoak eta hangoak</i> | 40 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza <i>Alkatearen aginduz</i> |
| 12 | Elkarrizketa Maria Maya
Manterola <i>"Zumaiartasuna pizten du Martinez Kleisserren liburua"</i> | 44 | Izpiak eta hizkiak Ibai Artetxe eta Oihana Artetxe
<i>Salto!</i> |
| 18 | Erreportajea Jabi Gonzalez Toston
<i>Bidean sastrakak oraindik</i> | 46 | Kultura Maria Maya Manterola
<i>Udazkeneko denboraldia, hastear</i> |
| 24 | Guka erreportajea Aitziber Arzallus
<i>Adimen artifiziala arrisku baino aukera gehiago</i> | | |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Maria Maya Manterola
mmaya@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Jabi Gonzalez Toston
Intza Trula

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Saioa Perona Balda

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA

Babesleak:



PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f b i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f b i

AIZPURUA

LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkarte

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladura

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Ardantzabide, 3. behea • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, frantses, hungaria, ingeles, espainiar, katalan, suediar, finlandiar, frantses, ingeles, katalan, frantses, katalan, espainiar, finlandiar, suediar, finlandiar, ingeles, basko, katalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskaibnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Itxaki Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivel.com
www.basadiclinivel.com

Golez: 11-13 / Armatzalez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxita
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etxez etxeko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

LITZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Irakurri, matte!



ARITZ MUTIOZABAL

Efemerideen zalea naiz. Bai, bai, gertakari hura izan zen garaian musika talde *kasposo* horren udako abestia bonbardatzen zuten irratian, eta horrelako hamaika daturen jagole frikia. Horrelako harrikadek, gainera, bide eman didate nire literatur sormenean bitxikeriak txertatzeko. Etzazuela pentsa idazle handi-mandi bat naizenik: tokian tokiko lehiaketetan parte hartu eta oso tarteka sariren bat lortzen duen horietakoa naiz. Duela pare bat urte Julene Azpeitia literatur sarian aipamen berezia jaso nuen, eta zer esango dizuet bada, argitaletxeek popatik hartzera bidali ondoren, egundoko ilusioa egin zidala.

Nire izen-abizenak hemeroteke bateko erregistroan geratuko dira orain jasota, ni bezalako friki batek noizbait arakatu dezan.

Aurtengo Julene Azpeitia lehiaketara lanak aurkezteko epea amaitu da, eta uda partean alfer samar ibili naizenez, ipuin berririk idazteko tarterik ez dut hartu. Aurten ez dut parte hartuko, beraz, zorte on parte hartzaileei. Ikasturte berriarekin udako alkandora hawaiiarra kendu eta udazkeneko errutinaren berokia soineratuko dut, eta prestutasun gehiagorekin hasiko naiz idazten nahiz irakurtzen. Irakurri Matte irakurle taldekoak ere abian dira jada, iragarri dute lauhileko irakurgaien zerrenda, eta aukera polita izan daiteke haiekin batzeko. Zergatik ez!

Irakurzaletasuna eta maitasuna. Askok jakingo dute ziur, baina eskua jokatuko nuke beste batzuek ez dutela aztarrenik izango Irakurri Matte izenaren jatorria zein den. Ez da nire asmoa *maisú Juanena* egitea, are gehiago *intruso* bat naizenean Zumaian. Baina interesantea iruditzen zait gogora ekartzea Julene Azpeitiak 1932an kaleratutako lehen liburua dela zehaztea. Sasoi hartan Euzko Ikastola Batza elkartearen eragilea izan zen, eta haurren irakurtzeko gaitasuna sendotzeko helburua zuten hiru liburuko saileko

lehen izan zen. Bertako irakurgaiak arinak eta errazak ziren, eta testu bakoitzaren bukaeran galdera sorta zeramaten ulermena lantzeko.

Haurren eta gaztetxoek euskarazko irakurzaletasuna sustatze aldera, bai Getarian, bai Zarautzen, irakurle taldeak jarriko dituzte martxan ikasturte honetan. Nobedadea da. Toki gutxitan daude oraindik ere, baina aurrekari beharrezkoa izan daiteke, euskal irakurleak hezi eta hazi nahi baditugu etorkizunera begira. Zumaia euskararen arnagune den herria izanik, kontuan hartzeko proposamena izan daiteke.

Horrekin lotuta, egun hainbesteko garrantzia duen euskal curriculum aberaste aldera, sentsazioa dut herriko kultur eta gizarte eragileen

ezagutza apala ez ezik, oso lausoa duela jendeak. Izen eta abizenez bai, lehiaketa, kale edo plaza baten izena daramatelako, baina nortzuk izan ziren eta haien jarduna nahiz ekarpena zein izan zen taosak ekarri bezala eraman duela komunitatearen oroimenetik. Jakin Fundazioak, esaterako, Emakume Abertzale Batzako

bederatzi emakumeren biografiak eta ekarpenak bildu zituen iaz bere webgunean, eta horrekin batera, haien lanak eta artikuluak digitalizatu. Bederatzi horien artean daude Julene Azpeitia bera, eta baita Elbira Zipitria ere.

Efemeride zalea naizela aitortu dut artikulu hasieran, eta oraindik inor ohartu ez bada ere, aurten Julene Azpeitiaren jaiotzaren 135. urteurrena da. Ados, ez da urtemuga borobil bat. Nolanahi ere, inoiz ez da berandu hitzaldi edo erakusketaren bat antolatze haren figura goratzeko. Bien bitartean, *Amandriaren altzoan* bere bigarren liburua irakurtzera animatuko zintuzketet. Umore finez idatzitako herri ipuinak dira, garaiko bizimoduaren berri ematen dutenak; Zumaia, Zestoa eta Aizarnako pasadizoak ditu kontagai, besteak beste. Sortzaile baten memoria bizirik eusteko modurik eraginkorrena haren ondarea irakurtzea delako, *matte!* ■■■

"SENTSAZIOA DUT HERRIKO KULTUR ETA GIZARTE ERAGILEEN EZAGUTZA OSO LAUSOA DUELA JENDEAK"

Arantxa Eizagirre: "Polita da oso haurrak aurrenekoz datozenean"

TESTUA: ONINTZA LETE ARRIETA

ARGAZKIA: MARIA MAYA MANTEROLA

Liburu artean bizi da Arantxa Eizagirre (Zumaia, 1966) 1993an Zumaiaiko liburutegian administrari hasi zenetik, Forondan, eta lanpostu berean jarraitzen du egun, Alondegian.

Liburutegiko administraria zara berez, baina zeregin askotan ezagutu zaituzte herritarrek...

Herri txikietako liburutegietan denetarik egin behar izaten da. Aurreneko egunetik haur liburutegian hasi nintzen lanean; helduenean, berriz, Josu Egaña liburuzaina egoten zen. Azken urteetan, ordea, beste lanpostu bat sortu dute, eta egun, umeen liburutegian oso gutxi egoten naiz. Oso polita da umeak aurreneko aldiz etortzen direnean edo eskolako bisitak datozenean.

Liburutegia eta liburuak aurreneko aldiz ikustean, oso harrituta gelditzen dira, ilusio handiarekin.

Baina helduenean egotea ere asko gustatzen zait. **Forondan hasi, eta gero, Alondegira. Aldaketa handia...**

Gozada izan zen Forondan lan egitea, oso toki berezia delako; ipunetako gaztelutxoa dirudi, eta barrutik ere oso goxoa zen, dena egurrezkoa, bista eta lorategi haiekin... Aldaketa egin zen irisgarritasunagatik eta leku gehiago emateko liburutegiari. Oso ondo dago Alondegia ere, baina eraikina hotzagoa da, eta hasieran dezente kostatu zitzaidan.

Alondegia irisgarriagoa izanik, nabaritu da erabiltzaile kopuruan?

Bai, hasieratik. Adibidez, udan, askoz udatiar eta erromes gehiago etortzen da Alondegira.

Edadetueta ere nabaritu genuen; badakizu oso tipikoa dela egunkaria liburutegian irakurtzea.

Bestalde, lehen haurrek-eta liburutegian aurkitzen zuten informazioa, eta orain, Googlen, ala?

Aldaketa handia sentitu dugu alde horretatik, bai. Aurreneko urteetan, haur mordoia etortzen zen eskolako lanak egiteko hiztegiak eta entziklopediak kontsultatzerara. Gero, Internet eta Google-n agerpenarekin, urte dezente da apenas kontsultatzen direla halakoak. Aldi berean, ordea, ordenagailu dezente ditugu, baita inprimagailuak

ere, eta zerbitzu oso garrantzitsua da herritarrentzat. Izan dira urte batzuk non askok ez zuten ordenagailurik edo wifirik etxean. Aldaketa handia izan da, baina informazio bila beti jarraitu izan du jendeak liburutegira jotzen.

Irakurzaletasunari dagokionez, asko aldatu dira herritarren ohiturak?

Ohiturak aldatu dira, baina irakurzaletasunak jarraitzen du. Lehen guztia paperean irakurtzen zen, eta orain, asko pantailetan. Lehen herri bakoitzak bere materiala zuen, baina urte asko daramagu sarean funtzionatzen Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi ia denok, eta hala, beste herrietan dauden liburuak ere irakur daitezke. Mugimendu handia dago hor, eta nire lanaren zati handia horri dedikatzen diot.

Zerk du arrakasta gehien gaur egun?

Nobela beltzak; badirudi joera orokorra dela hori. Erabilerari dagokionez, ikastetxeetan agintzen dituzten liburuak asko mailegutzen dira.

Ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak eta halakoak ere egiten dituzue. Horiek nolako harrera dute?

Saiatzen gara ipuin kontaketak sarritan antolatzen, eta horiek arrakasta handia izaten dute. Musikatuak egin izan ditugu, baita ilustratzaileekin ere... Eta helduen liburutegian aurkezpen eta solasaldiak egiten ere hasi gara. Horrez gain, nahiz guk ez antolatu, irakurle taldea ere badago herrian, Irakurri Matte.

Oroitzapen mordoia izango duzu. Zein dira politenak?

Hasierako garaiez gogoratzen naiz, nola Eulalik eta Ferminek zaintzen zuten jauregia, lorategiak... Etxe barrua landarez beteta edukitzen zuten.

Familia giroa, goxotasuna ematen zioten.

Harreman handia egin genuen haiekin. Bestalde, liburutegian hasieran dena eskuz egiten genuen: Josuk liburu bakoitzaren fitxa eskuz egiten zuten, eta nik makinaz pasatzen nuen, kar-kar. Lan asko zen, baina xarma handia zuen. Polita den beste gauza bat da Forondan ezagututako ume asko gaur egun beren seme-alabekin etortzen direla Alondegira; hunkigarria egiten zait.





Etxape Zentro Sozialista

Azaroaren 8an urtea beteko da Etxape Zentro Sozialistaren irekiera iragarri genuenetik, urte luzez hutsik egon den espazio horri bizia eman genionetik. Hilabete beranduago, abenduaren 15ean, Zentro Sozialista egonkortzea lortu zela jakitera eman genuen, espazioaren erabilerarako akordio batera iritsi ostean. Aurkezpena, berriz, apirilaren 6an egin genuen, emozioz beteriko hilabete luze eta gogor horietan zehar gertu izan genituen pertsonen babesean. Orduetik hona, hainbat jarduera eta ekimen antolatatu ditugu, eta lehen proiektuei hasiera eman diegu.

Hala ere, aurrera egin aurretik Zentro Sozialistak zer diren, zer helburu duten eta bertan zer jarduera garatzen diren

azaltzen saiatuko naiz, labur-labur. Izan ere, behin eta berriz galdetu izan digute ea zer demontre diren Zentro Sozialistak, zertarako behar ditugun espazio hauek, euren artean zer lotura dagoen... Motzean, esan genezake Mugimendu Sozialistaren egoitza politiko eta sozialak direla. Politikoak dira, batetik, zereginak, bilerak eta barne-lanak egin ahal izateko ezinbesteko espazioa direlako eta, bestetik, sozialak direla diogu gure jardueraren

SORRERA TESTUINGURU JAKIN BATEAN ULERTU BEHAR DUGU: KRISI KAPITALISTA GARAIA

erakusleiko ere badirelako. Horrela, gure erreferentzia-puntu nagusi ere badira, oinarri sozialarekin topatzeko espazio bat, edota interesa duen oro bertaratzeko toki bat.

Bestetik, Etxape zein gainerako Zentro Sozialisten sorrera testuinguru jakin batean ulertu behar dugu: krisi kapitalista garaian. Langileriaren bizi baldintzak egunetik egunera ari dira okertzen, eta eskubide politikoaren galera ere etengabea da. Testuinguru horretan, beharrezkoa da baldintza horiek defendatzeko borrokak abiatzea. Krisiak gogorren kolpatu dituen gizarte sektoreen pobretze orokorrari aurre egin eta egoera horri buelta emateko hainbat lan lerro jartzea dute helburu Zentro Sozialistek. Proiektu horiek, ordea, ez dira

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Hemengoak eta hangoak

Itzurunen izurdeak ikusi ahal izan genituen iraileko egun batean. Ez zen udako egunik eguzkitsuena izan, eta hondartza ia hutsik zegoen. Uretan hiru edo lau pertsona zeuden soilik, eta lasaitasun horrek ere lagundu zion izurde familia hari lasai igeri eta salto egiten. Bainua lasai hartzea gauza ederra da, eta hondartzan patxadaz egotea ere bai.

"Kendu paretik, eguzkia kentzen didazue-eta!", entzun behar izan dugu uda honetan Itzurunen. Kanpotik etorritako emakume horrek ezin izan zuen jasan –gure oinetan toalla zabaldu ostean– bere aurrean altxa eta lagun batekin bi minutuz hitz egiten egotea. Hondartzan leku gehiago izan arren, guri itsatsita jarri zela esan genion, eta ez zela horrela jartzeko modukoa, bi minutuko kontua besterik ez zelako izan. "Bi minutu izango zirela zuek bakarrik zenekiten, ez nik". Entzun egin behar.

Ez dut inor epaituko turista izateagatik, ni ere joaten bainaiz kanpora. Ordea, ez zait bururatuko kanpoan inori hondartzan zer egin behar duen esatea. Hitz egiteko nora joan behar duen esatea, eta are gutxiago, toalla inoren hantetan jartzea. *Respect the locals*, edukazioagatik bada ere.

modu asistentzialista batean ulertzen, langileriaren antolakuntza gaitasunak indartzea xede duten tresna gisa baizik, ekoizpen eredu kapitalista gainditzeko prozesura lotuta daudenak.

Etxapen ere, pixkanaka-pixkanaka, ari gara miseria garaietan borroka ehuntzen, eta dagoeneko abiatu ditugu ekimen ezberdinak. Esaterako, inoizko ikasturte hasierarik garestiena izaten ari den honetan, eskola material bilketa antolatu dugu, beharra duten familientzat. Bestetik, errefortzu eskolak izango genituzke, eskolaz kanpoko hezkuntzarako sarbidea ez dutenei zuzenduta dagoen proiektua, langile klasearen elkarlaguntza eta defentsa oinarri dituenak. Horrez gain, maiatzetik abian da Aholkularitza Bulegoa, orain

arte Laneko Autodefentsa Sareak baliatu duena; aurrerantzean, ordea, irail amaieran aurkeztu berri den Etxebizitza Sindikatuak ere erabiliko du. Bertan, soldatapeko lanari eta etxebizitzari lotutako arazoak eta gehiegikeriak pairatzen ari direnei arreta eskaintzen zaie, zalantzak argitu eta babesa eman ahal izateko.

Hemendik aurrera ere horretan jarraituko dugu, langileriaren antolakuntzarako baldintzak sortzen, bizi baldintzen eta eskubide politikoaren aurkako ofentsibari aurre eginez. Gorrotoaren inpotentzia nagusitzen ari den garaiotan, antolakuntzaren potentzia garatzea dagokigu, mundu berri baten aldeko grina hedatzea, apatiaren aurrean itxaropena gailendu dadin. ■





www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

**MARKETIN eta
KOMUNIKAZIO
ZERBITZUAK**

02



Estrategia eta planifikazioa

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

B

K

eto



KH

hnt

ZH

ekin
elektrikitate, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943-14 80 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta Irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxila Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

"Zumaiartasuna pizten du Martinez Kleisserren liburuak"

ISMAEL MANTEROLA ARTE HISTORIALARIA

Luis Martinez Kleisser jurista eta idazleak Zumaiari liburu bat eskaini zionetik mende bat igaro da. Herriari buruzko historiako lehen liburua da, eta liburu hark Zumaiako historian egin zuen ekarpenaz nahiz lantzen diren gaiez aritu da Manterola urteurrenaren kari.

Testua eta argazkiak:
Maria Maya Manterola.

Udatiar madrildarra zen Luis Martinez Kleisser 1920eko hamarkadako Zumaian. *Villagrana* hitzak sortzen zion jakin-minari tiraka hasi, eta herriari buruzko lehen liburu historikoa idazten amaitu zuen. Irakurterraza eta arina, *Villa de Villagrana de Zumaya* liburu argitaratu zuen 1923an, duela mende bat.

Zumaiako historiari zer ekarpen egiten du *Villa de Villagrana de Zumaya* liburuak?

Zumaiari buruzko lehen liburua da, eta beraz, ekarpena handia da. Aurrenak beti dauka garrantzia, oinarritu egiten duelako ikerketa historikoa. Normala ez zen izaten herri txiki hauen historiaren inguruko liburuak izatea, halako gaiei ez zitzaielako garrantziaz ematen. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, ordea, mikro-historian interesatzen hasi ziren, eta ez hainbeste estatuei buruzkoetan.

Toki txiki baten historiari islatu dezake makro-historia, eta garai hartan hasi ziren aztertzen halakoak historialariak. Hori bera bada aldaketa historiografiko bat; historia ulertzeko moduetan aldaketa txiki bat dago.

Halako gauza txikiak sortzen hasiko dira hainbat herri txikitan. Batik bat, kuriositatea duen jendea hasiko da. Ez dira historialari oso profesionalak ere: intelektualak dira, denetik dakitenak, idazketarekin harremana dutenak... Interesa dute.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak herrietako artxiboak antolatzeke erabakia hartu izanak eragina izan zuen. Ordura arte





Elkar Zumaiaiko merkatarien elkarteak argitaratutako edizioaren azala. M. MAYA MANTEROLA

"ZUMAIK 'VILLAGRANA' ABIZENA DAUKA. INORK EZ ZEKIEN ZER ZEN, ETA IDAZLEARI JAKIN-MINA SORTU ZION HORREK"

harrera ofiziala egiten zuen udalak, eta bertan izaten ziren maila kultural bat zuten *beraneanteak*, harrera hartara gonbidatzen zituztelako. Haietako batean, eztabaidatzen hasi ziren *villagrana* hitzaren inguruan.

Herriak sortzen zirenean, horiek izena eta abizena izaten zituzten. Asko *villaf Franca* ziren: libreak. Edo *villarreal*, erregeak antolatutakoak. Zumaiak, ordea, *villagrana* dauka. Inork ez zekien zer zen, eta zergatik. Martinez Kleisserri jakin-mina sartu zitzaion, eta orduan hasi zen dokumentuak aztertzen. Dokumentazioak gehiagorako ematen zuela ikusi zuen, eta hortik tiraka sortu zuen liburu hau. Autoedizioa izan zen; jaioterrian editatu zuen, Madrilén.

Zumaiaren zer erretratu egiten du liburuan?

Liburu hainbat kapitulutan dago antolatuta, eta bakoitza ikuspuntu bati dagokio. Bera hasten da *villagrana*-ren azalpena emateko gogoarekin, baina gero azaltzen du noiz sortu zen herria, zer zegoen herria sortu aurretik eremu geografikoan, teoria batzuk botatzen ditu oso zuzenak ez direnak... Eta, gero, XVI. mendeari ematen dio garrantzia. Iturri aldetik ugariagoa da garai hori, eta artxiboan konturatzen da informazio asko dagoela.

XVI. mendeko Zumaia deskribatzen du, eta gero sartzen da elementu inportanteenetan; elizan, esaterako. Horrez gain, ongizateaz eta kultuaz idazten du, alderdi ohiturazkoagoez.

Amaitzen du esanez etorkizun handia duen herria dela Zumaia. Kapitulu oso desberdinak dauzka.

Gaur egungo Zumaiak ba al dauka antzik bere iragarpenarekin?

Bai. Kontuan izan behar da Martinez Kleisserrek elkarte bat sortu zuela Zumaiaiko turismoa bultzatzeko. Berak bultzatu zuen Amaya

artxiboak paperez betetako saski-naskiak ziren. Serapio Mujika uste dut arduratu zela horretaz. Badago momentu bat non diputazioa jabetzen den hor altxor bat badagoela, eta ondare hori antolatu egin behar dela.

Artxibo bat bada baita ere herri batek daukan tresna bat zenbait gauza ordenatuta edukitzeko, administratzeko. Eta hori oso inportantea da. Horrek erraztu egin zuen ikerketa, eta metodo historikoetan oinarritutako lehen liburuak argitaratu ziren, elezaharrak eta kontakizunak alde batera utzita. Badago gogo bat, eta badago erraztasun bat horretarako.

Nolatan sortu zitzaion liburu idazteko asmoa?

Badago idazleari atentzioa deitzen dion zerbait, eta hori *villagrana* hitza da. Garai batean, San Pedro Egunez,

hotela, eta 1923an hasi ziren eraikitzen. Donostiaren isla edo erreferentea hor dago beti, Zarauzkoa ere bai, eta Zumaian ez zegoen halako hotelik. Pentsioak eta hotel txikiak bai, baina hotel dotorerik ez.

Martinez Kleisser eta jende gehiago abentura hartan sartu ziren. Turismoari eman zioten garrantzia. Bera ere turista zen, eta horrek ere edukiko du garrantzia.

Ez zuen asmatu gauza batzuetan. Turistikoa orain da gehiago, baina uste dut XX. mendean herri industrial bat bihurtu zela. Baina asmatu zuen.

Norentzat idatzi zuen liburua?

Nik uste dut zumaiarrentzat dela. Zumaiako ia familia guztiek zuten aleren bat. Horrek esan nahi du jendeari kuriositatea sortu ziola. Ez zuten goitik behera irakurriko, baina ikusiko zuten garrantzia zuela beren herriak.

Nire familian, adibidez, amaren aldetik eta aitarenetik, bi aldetatik zegoen liburu hura etxean. Nik uste dut jendeari harrotasun puntu bat eman ziola. Zumaiak badauka bere historia, badauka zer kontatua, eta berezia da. Ez dakit zenbateraino irakurtzen zuten, baina liburu gutxi izaten ziren etxean, eta edukitzea bakarrik bazen zerbait. Ziur aski, hau izango zen erlijiosoa ez zen bakarrenetakoa. Kultura maila ere argitalpenaren dataren inguruan hasi zen goraka. Dagoeneko ez da XIX. mende erdialdea.

Udatiarrentzat ere bada, dudarik gabe, baina hemendik kanpo jende gutxiri interesatzen zitzaion Zumaiaren historia. Bereziak dira liburu hauek: herriko harrotasuna pizten dute, eta kohesio puntu bat eman; zumaiartasuna pizten du.

Eta zergatik izan daiteke interesgarria gaur egungo zumaiar batentzat?

Alde batetik, kuriosoa da nola idazten zen historia duela mende bat. Eta, bestetik, egitura antzekoa jarraituko luke gaur egungo liburu batek ere. Badauka gaurkotasuna.

Gauza batzuek ez dira gehiegi aldatu; adibidez, herriaren sorrera kontatzeko duen modua. Nabarmentzekoa da idazle batek idatzitako liburua dela, eta beraz, ondo idatzita dagoela gaztelaniaz. Berez idazlea zen Martinez Kleisser, kazetaritza lanak egiten zituen. Erraz irakurtzekoa da, maila badauka. *El reloj y el órgano*, esaterako. Bi orriko kapitulu txiki bat da, eta entretenitua da. Bitxikeria horiekien batera, oso gomendagarria da zerbait ikasi nahi duenarentzat.

Egia da literarioa dela, eta ez hain historikoa. Liburu historikoak kontsulta moduan interesatzen zaizkit, baina hau bada liburu bat goitik behera irakur daitekeena. Gainerakoak akademikoagoak dira, zorrotzagoak.

Zorroztasun historikoa badauka, ez du gezurrik esaten, baina erraz irakurtzen da. Badaude gauza batzuk, dena den, ez direnak zuzenak:



Luis Martinez Kleisser.

**"KURIOSOA DA
IKUSTEA NOLA IDAZTEN
ZUTEN HISTORIA
DUELA MENDE BAT"**



Martinez Kleisserren liburuko 1923ko Zumaiaiko planoak.

Martinez Kleisserrek teoria batzuk botatzen ditu elizaren inguruan, adibidez. Baina lehen historia da, eta akats batzuk edukitzea normala da.

1983an bete ziren 60 urte argitalpenetik, eta Zumaiaiko Elkar merkatarien elkarteak erabaki zuen liburu honen faksimile bat egitea. Ez da aldaketarik egiten diseinuetan edo testuan, kopia bat da, alegia. Liburua agortuta zegoen, eta berriz ere argitaratu zuen elkarteak, argazki berri batzuekin.

Hitzaurrea dute desberdina.

Gauza interesgarria da Karmelo Etxegarairen hitzaurrea. Garai hartako Gipuzkoako kronista zen, eta Euskal Herriko intelektuala izatera iritsi zen bere anaia Bonifaziorekin batera.

"HERRITARREK BEHARBADA EZ ZUTEN IRAKURRIKO, BAINA IKUSIKO ZUTEN GARRANTZIA ZUELA ZUMAIK"

Etxegarairen hitzaurrean agertzen da lehen aipatutako kontu bat, eta da nori zuzendua den liburuak. Etxegarai bezalako jendeak pentsatzen du Euskal Herriko historia idatzi gabe dagoela eta idatzi beharra dagoela. Haientzat oso inportanteak dira halako liburuak, Euskal Herriko historiaren parte direlako. Horregatik egiten du Etxegarai hitzaurrea. Luzea da, eta azaltzen du zer garrantzia duen liburuak.

Martinez Kleisser udatiarra zen, baina Etxegarai hemengo pertsona kulto bat zen, herrigintzan lana egin zuena. Nik uste dut Zumaian bazeudela garai hartan puntu interesgarri batzuk: Txomin Agirre, adibidez, Zumaian zegoen. Bada giro bat kulturaren aldekoa.

Bigarren kopian, berriz, Martin Ugaldek idatzi zuen hitzaurrea. Guretzat inportantea izan da, kazetaritzaren esparruan, batez ere. Hitzaurre hau euskaraz idatzita dago. Ondo dago ikustea nola berrargitaratu zen liburuak, eta zer arazo zeuden originala aurkitzeko.

Liburu honek eragina izan du gero etorri diren beste guztietan. Paper batzuk ere desagertu dira tarte honetan, eta inportantea da jakitea berak zer kontsultatu zuen. Hurrengo liburuak, gainera, ia 50 urtera argitaratu zuen.

Lortu al daiteke liburuak gaur egun?

Zaila izango da. Liburutegian badago, eta etxeetan ere bai. Mantendu diren etxeetan, behintzat. Berrargitalpena aurkitzea errazagoa izango da.

Gu txikiak ginenean mojetan historia lehiaketak antolatzen ziren. Taldeak eskoletan egiten ziren, eta lehiaketan parte hartzen zuten. Ia eskola guztietan irakurtzen zen liburu hau, galderak horren ingurukoak zirelako. Liburu hau zen iturria. ■■■■

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

Bidean sastrakak oraindik

Kirol gehienetako denboraldiak jada martxan diren honetan, emakumeak esparru horretan izan duen garapenari erreparatu nahi izan dio Baleikek. Horregatik, kirolarekin lotura estua duten hiru belaunalditako emakume bana elkartu ditu haien testigantzak jasotzeko.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Udako oporraldia atzean utzi eta urteko ohiturak pixkanaka berreskuratzen hasteko hilabetea izan ohi da iraila. Bada, hori ere gaituta eta urrian sartuta, martxa hartuta dira jada herritar gehienak. Tartean, emakume kirolariak; izan ere, bakarka nahiz taldean aritzen diren gehienek dagoeneko abiatu dute 2023-2024 denboraldia. Arraunlariak dira salbuespenetako bat, estropadez beteriko uda gogorraren ondoren, non Kontxako Bandera eta Euskotren ligara igotzeko play-offa ere lehiatu dituzten, atseden hartzeko egunak baitituzte orain, azaroan indarberrituta berrekiteko entrenamenduei.

Denboraldi hasiera erritmoa hartu eta norbere buruari erronkak jartzeko garaia ere izaten da. Hala egin du Josefa Molina (Zumaia, 2004) piraguistak ere. Bigarren denboraldia izango du honakoa 23 urtez azpikoen mailan, eta "hobetzen jarraitzea" du helburu nagusi: "Joan den denboraldian nahiko emaitza txukunak lortu nituen, eta oraingoan ere hala izatea espero dut. Txapeldunorde izan nintzen KIean Aranjuezen [Madril, Espainia] jokaturako Espainiako Ibaletako Txapelketan, hirugarren Espainiako Maratoiko Kopan K2an Eider Amundarainekin batera, eta brontzea ere lortu nuen Espainiako Esprint Olinpikoko Txapelketan K4 500 metroko proban Irati Osarekin, Eider Amundarainekin eta Begoña Lazkanorekin. Mila metrokoan, berriz, laugarren izan ginen".

Ane Osak (Zumaia, 1996), berriz, hamabigarren denboraldia jokatu du Zumaiaiko futbol taldeko lehen taldean. Kapitaina da



gaur egun, eta abiatu berri duten denboraldia "aurrekoaren antzekoa edo hobea" izatea espero du: "Iaz lehenengo bost taldeen artean sailkatzea jarri genuen helburutzat, eta laugarrenak izan ginen. Aurten, mailaz igotzeko borrokan jardun nahiko genuke. Lortzen badugu, ikusiko dugu zer egin; izan ere, duela zazpi bat urte lortu genuen Euskal Ligara igotzea, baina tokiari uko egin genion guretzat ez zelako bideragarria bi astetik behin Gasteizera edo Bizkaiko beste herriren batera joatea. Batik bat, entrenamenduetara sei lagun agertu ohi ginelako soilik".

Horri lotuta, aurten taldea osatzeko zailtasunak izan dituztela aitortu du kapitainak: "Oso jokalaria gutxirekin abiatu dugu denboraldia, hamazazpik soilik dugu senior taldeko fitxa, eta horietatik bik epe luzerako lesioak dituzte. Horregatik, 15 urteak beteta dituzten kadeteak igo beharko dituzte gurekin joka dezaten. Dena den, Zumaiakon oso ohikoa izaten da hori, eta urteak dira klubak neska jubenilen talderik ez duela. Kadete mailatik zuzenean pasatzen gara senior mailara. Ziurrenik egongo lirateke jubenilen taldea osatzeko adina jokalaria, baina hala eginez gero, ez litzateke seniorren taldea aterako, eta klubak nahiago dio bigarrenari eutsi. Gainera, modu horretan, nagusiagoak garen jokalariorik jokatzen jarraitzeko aukera dugu".

Kontrara, Pulpo eskubaloia taldeak beti eutsi die harrobiko taldeei, nahiz eta emakumeak falta zituen seniorren taldea osatzeko. Hala eta guztiz ere, klubak eskaini die eskubaloian jokatzen jarraitzeko aukera adinez seniorrak ziren emakumeei; jubenil mailakoekin egin

Ezkerretik eskuinera Ane Osa, Josefa Molina eta Ainhoa Azurmendi.



ANE OSA: "EZ DUGU SENTITZEN JASOTZEN DUGUN TRATUA GIZONEK JASOTZEN DUTENAREN BERDINA DENIK"

dute aurten arte. Izan ere, denboraldi honetan bai, klubak lortu du azken urteetan izan ez duen seniorren talde hori berreskuratzea. Ospatu egin du hori Zumaian bizi den Ainhoa Azurmendi (Hernani, 1978) kirol aholkulariak, eta espero du datozen denboraldietan jarraipena izatea.

Zentzu horretan, emakumeek kirol taldeak gaztetan uzteko duten joeraren atzean dagoena ere azaldu du Azurmendik: "Askotan iruditzen zaigu ikasketak edo bestelakoak lehenesten dituztelako uzten dituztela kirol taldeak emakumeek senior mailara iristean, baina gizonek ere ikasten dute. Gainera, taldea utzi duten emakume horietako askok

beren kasa egiten dute kirola gero, eta sarritan ez plazeragatik, estetika edo osasun arrazoiengatik baizik. Horregatik, uste dut gaztetatik klub baten barruan esperientzia positiboak izatea eta taldearen filosofiarekin bat egitea dela gakoa, horrek lagunduko dielako barneratzen zein diren talde baten parte izateak dituen onurak. Gustura badaude egingo dute ahalegina kirol taldea haien bizitzako gainerako kontuekin uztartzeko, hori posible delako. Iruditzen zait Pulpok lortu duela neska gazteek klubarekiko identifikazio hori izatea, baina horri eusten asmatu behar du orain".

Zumaia, eredugarria

Herriko diagnosi orokorragoa ere egin du kirol aholkulariak, eta emakumeek kirola egiteko duten aukeren aldetik, "oso osasuntsu" ikusten du Zumaia: "Eskaintza zabala du eta bolumen handia, aldi berean. Herriak duen tamainarako oso handia da partaidetza, zeren badira herri handiagoak kirol talde gutxiago dituztenak. Pulpok, adibidez, nesken talde pila bat ditu azpiko kategorietan, eta futboleko jokatzeko duten nesken kopurua ere asko hazi da. Horrez gain, Emakumeen Etxeak antolatutako jardueren barruan gero eta gehiago sustatzen dute kirola, eta oso ongi iruditzen zait betiko lehiaketetatik aldentzen direlako eta helduagoak diren emakumeak direlako, gehien bat, parte hartzen dutenak. Betetzen ari dira mendi irteeretako jarritako gehieneko kopuruak, pala txapelketetakoak nahiz surf ikastaroetakoak. Era berean, korrika egiteko emakumeen taldeak ere osatu dituzte. Kirola ahalduntzeko tresna oso baliagarria da, eta baliatu egin behar da".

Halaber, Zumaia "erreferente asko" dituela ere nabarmendu du Azurmendik: "Arraun taldea, Irati Osa, Janire Gonzalez-Etxebarri... sekulako emaitzak lortzen ari dira, eta hori oso garrantzitsua da neska txikiek ereduak izan ditzaten".

Horren harira, Molinak esan du "ohorea" dela beretzat Irati Osarekin ia egunero entrenatzea, eta asko ikasi duela harekin, gainera. Ildo beretik, Ane Osaren aburuz, "piraguintentzat ez ezik, herriko emakume kirolari guztientzat da erreferentea, ikusi egiten zaiolako egiten duen esfortzua emaitzak lortzeko. Hala ere, esan behar dut nirekin jokatu izan duten eta gaur egun taldekide ditudan emakume guztiak ere badirela erreferenteak niretzat, egunero ikasten dudalako zerbait haietako bakoitzarengandik, bai futbol zelaian, bai bertatik kanpo. Taldekide izatearekin batera, zeregin garrantzitsua dute nire bizitzan".

Ereduekin lotuta, eta piraguara itzulita, Itxas-Gainen badute kirolean nahiko ezohikoa den egiteko modu bat: "Gizonek zein emakumeek batera entrenatzen dugu, eta kategoria askotakoak aritu ohi gara elkarrekin, gainera. Kadete mailatik hasten gara seniorrekin entrenatzen. Horrez gain, K2 mistoak ere indarra hartzen ari dira orain, eta pozgarria iruditzen zait, ederra delako gizonak eta emakumeak bikotea osatuta elkarrekin lehiatzeko aukera hori ere egotea. Distantzia Olinpikoko Munduko Txapelketan 2021etik antolatzen dituzte proba mistoak. Uste dut piraguan egiten dutela berdintasuna zaintzeko benetako ahalegina", adierazi du Molinak.

Azurmendik uste du, halaber, ereduak ez direla mugatu behar kirol jarduerara: "Herriko klubetako zuzendaritza batzordeetan emakume asko ari dira lanean, eta hori positiboa da. Gainera, sekulako lana ari dira egiten hurrek eta gazteek aukera izan dezaten kirola egiteko, baina, entrenatzaile eta teknikari postuetan emakume gehiago behar dira, eta iruditzen zait hor badagoela nolabaiteko erronka, gaur egun gutxi direlako eta emakumeek sinistu behar dutelako beraientzat ere izan daitekeela aukera bat. Emakume teknikariak izateaz eta kirolean ere genero ikuspegia txertatzeaz hitz egiten dugunean, oso gauza garrantzitsuez ari gara, zeren, kirolari eta entrenatzaileen arteko harremanak kirolek harago doaz, eta, neska gazteek emakume entrenatzaileak izatea oso lagungarria da zenbait egoera normalizatzen. Adibidez, neskek bularraldea ez estaltzeko, edo hilekoa dutenean, lasaitasunez joateko komunerak".

Kexatzeak balio du

Hobetzeko dauden arlo gehiago ere identifikatu ditu kirol aholkulariak herrian bertan: "Indarkeriaren prebentzioan dago zeregin nagusietako bat, eta ez naiz ari emakumeen aurkako indarkeria sexualaz soilik. Psikologikoaz ere ari naiz, hainbat egoera asko normalizatu baitira kirol taldeetan adin txikikoekin sortzen diren harremanetan. Egia da gaur egungo legeak klub guztiak behartzen dituela protokoloa izatera adin txikikoen aurkako indarkeriaren prebentziorako, baina dokumentu batekin eta



**JOSEFA MOLINA:
"K2 MISTOA AUKERA
POLITA DA
EMAKUMEK ETA
GIZONEK ELKARREKIN
LEHIATU DEZATEN"**



AINHOA AZURMENDI: "INDARKERIAREN PREBENTZIOA HOBETU ETA EMAKUME TEKNIKARIAK UGARITU BEHAR DIRA"

formakuntza batekin ez da nahikoa. Lanketa handiagoa egitea beharrezkoa da kirolari guztiak sentsibilizatzeko benetan gai izan daitezen identifikatzeko zer den onargarria eta zer ez, eta onargarria ez den hori identifikatzean norekin hitz egin behar duten argi izan dezaten".

Osaren ustez, emakumeak "gutxiengoan" daude oraindik kirolaren esparru orokorrean, "eta futboleant, zer esanik ez". Zumaiakoko kapitainaren hitzetan, gizonetako hartzen dituzte eredutzat denerako: "Ez naiz ari arlo ekonomikoaz soilik, detailerik txikienetan ere ikusten da disparketotasuna, baita herri mailan ere. Zumaiakoko talde guztien partidak iragartzeko kartelei erreparatu besterik ez dago. Senior gizonen lehen taldeak jokatu duena da beti zerrendan lehenengoa agertzen dena, nahiz eta bi taldeok maila berean jokatzen dugun, Ohoretako Erregional Mailan. Are gehiago, gure taldea gizonetakoena baino maila bat gorago zegoenean ere, gizonetako partida zen zerrendan lehenengoa. Horrez gain, bi taldeek etxean jokatu behar badugu asteburu berean, gizonetako taldeak izaten du ordutegia aukeratzeko lehenetasuna".

Hala ere, emakume kirolarien baldintzek izan dute onerako garapenik. Alderaketa egiteko atzera begirada bota du Azurmendik: "Oroitzen dut zein

ordutegi izaten zituzten emakume futbolarietako entrenatzeko.

Okerrenak beti. Nik eskubaloian jokatzen nuenean, senior mailan, azkenak izaten genituen entrenamenduak, eta gaueko hamarrak aldera amaitzen genituen. Egia da gizonetako ere antzeko ordutegiak zituazela, seniorrek beti entrenatzen dutelako azkenak, baina entrenamendutik gauez atera eta emakume futbolariak oraindik zelaian ikustean, neure buruari esaten nion: *Hauek bai meritua*. Horretan hobetu da bereziki, baliabideen banaketan".

Zumaiakoko kapitainaren esanetan, aldaketa horietako guztiak lortu badituzte izan da "borrokatu" egin dituztelako eta "asko kexatu" direlako, eta eztabaida baten adibidea ere eman du: "Joan den denboraldira arte ez dugu gainsaririk izan partidak irabazteagatik. Gizonetako, aldiz, bazituzten gu baino maila bat beherago zedenean ere. Gure desadostasuna adierazi genion zuzendaritzari, eta guk ere gainsari bat izatea onartu zuten irabazitako partida bakoitzeko. Guk ez dugu diru hori behar, baina iruditzen zaigu gizonetako baldin badute, guk ere izan behar dugula. Dena den, gure gainsariak eta gizonetako ez du zerikusirik, 450 euro jasotzen dituztelako haiek, guk 100 jasotzen ditugun bitartean. Argudioa da haien partidak ikusteko sarrera ordaintzen dutela zaleek eta tabernan ere gehiago kontsumitzen dutela, baina ez dut uste klubak partidako lortzen duen irabazian 350 eurokoa aldea dagoenik. Gainera, klubak Gipuzkoako Federazioaren laguntza jasotzen du emakumezkoen taldea edukitzeagatik. Oraindik ez gara berdintzatatuak sentitzen".

LEHIAKETA

NON DAGO? BALEIKE ?

Aurkitu Baleike pertsonaia aldizkarian eta irabazi saria.

Erantzuna **aldizkaria@baleike.eus** helbidera

urriaren 20a baino lehen.

Baleike Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



17. orrialdean zegoen ezkutatuta

Aloña Otegi

bazkidea izan da irabazlea

TXOPA tabernan bi lagunentzat

otordua jaso du.



ADIMEN ARTIFIZIALA ARRISKU BAINO AUKERA GEHIAGO

Adimen artifizialak etorkizuneko izateari utzi dio, eta edonoren eskura jarri da. ChatGPT testu sortzaile autonomoa izan da teknologia horren eztanda eragin duena, eta haren atzetik, arrapaladan etorri dira testuak, irudiak eta audioak sortzeko gaitasun handiko dozenaka sistema. Jakina da adimen artifizialak eraldaketa handiak ekarriko dituela; horren aurrean nola jokatu, hor dago eztabaida. Batzuek, gizateriaren bukaera hurbil egon daitekeela ohartarazi dute; beste batzuek, aldiz, ikertzen jarraitu behar dela uste dute, epe motzera eta epe ertainera ekarriko dituen onurak kalteak baino handiagoak izango direla iritzita. Epe luzera zer gertatuko den, berriz, ezin da iragarri.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Utzitakoa, Arnaitz Rubio Aprea eta Unax Larrañaga**.





Adimen artifizialak milioika lanposturen galera ekarriko duela, pandemiak eta gerra nuklearrek baino ondorio larriagoak eragin ditzakeela edo gizateria bera desagertzea ekar dezakeela. Hedabideetan gisa horretako titularrak irakurrita, ez da harrizkoa teknologia horren inguruan ezer gutxi dakiten herritarrek beldurra sentitzea. Are gehiago, adimen artifizialaren sektoreko adituek eta enpresaburuek egindako baieztapenak badira horiek. Eta oraindik eta areago, duela gutxira arte adimen artifizialaz ezer entzun ez, eta azken hila-beteotan bazter guztietan horren inguruan hizketan ari badira, dagoeneko errealtate bat dela esanez. Ordea, adimen artifiziala apokalipsiaren pareko jarri duten horiexek beraiek dira teknologia hori garatzeko dirutzak inbertitzen ari direnak; arriskuez gain, bestelako aukerak ere badituen seinale.



"Nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo", adierazi du Gorka Azkune (Azpeitia, 1982) informatikari eta EHUko IXA taldeko ikertzaileak. "Adimen artifizialak potentzial handia duela ukalezina da, eta noraino irits daitekeen iragartzea, ezinezkoa. Adimen artifizialak gizateria mendea hartuko duela esatea titular mamitsua da telebistan ateratzeko, baina uneotan tamaina horretako baieztapenak egitea gehiegikeria hutsa da".

Adimen artifiziala gizateria mendea hartzeko bidean den teknologia gisa definituz gero, robotek kontrolatutako planeta bat etorriko zaio burura bati baino gehiagori, filmetan ikusitako irudiak, eguneroko bizimodutik urrun dauden kontuak. Baina, izatez, adimen artifiziala hori baino askoz benetakoagoa da, eta herritarrek urteak daramatzate teknologia hori erabiltzen, ziur asko horren jakitun izan gabe. Esate baterako, eskuko telefonoek adimen artifizialari esker ezagutzen dute jabearen aurpegia; Netflixek adimen artifiziala erabiltzen du bezero bakoitzari zein telesail eta film gomendatu erabakitzeke; GPSek eta Google Mapsek adimen artifizialari esker jakiten dute erabiltzaile bati proposatutako ibilbidearen zati batean auto pilaketak daudela eta helmugara iristeko ohi baino denbora gehiago beharko duela; kirola egiteko oinetakoen beharrea dagoenari sarean nabigatzerakoan etenik gabe kirolerako oinetakoen eskaintzak azaltzea ez da kasualitatearen fruitua, adimen artifizialarena baizik; ohiko supermerkatuaren aplikazioan sartzera erabiltzaile bakoitzaren erosketaren zerrenda prestatzen duen hori adimen artifiziala izaten da; eta horrela, zerrenda nahi adina luzatzea legoke.

Adimen artifizialak, era horretako aplikazio eta erabilpenen bidez, urteak daramatza herritarren bizimodua errazten, baina azken hilabeteotako eztanda ez da horien bidetik etorri, horiena baino adimen garatuagoa duten beste zenbait aplikazioen eskutik baizik. Dударik gabe, OpenAI enpresak garatutako ChatGPT testu sortzaile autonomoa da denen artean izarra, eta haren ostean etorri dira beste hainbat, irudiak, audioa eta musika zein testuak abilezia handiz sortzeko gai direnak; besteren artean, Google Bard, Grammarly, Synthesia, Dall-e eta MusicGen.

Adimen artifizial sortzailearen booma

Herritarren eskura dauden eredu horiek adimen artifizialaren esparruan uneotan dauden eredurik onenak direla ziurtatu du informatikariak. "Agian horiek sortu dituzten enpresek izango dituzte eredu hobekien esku artean edo ikerkuntza fasean, baina guk behintzat ez ditugu; eredu horiek erreferentziak dira guretzat". Hala ere, "arazo handi bat" dutela nabarmendu du: "Denak sistema itxiak dira, eta ondorioz, ez dakigu ezer horiei buruz; ez dakigu nola entrenatu dituzten, zer informazioekin, zer arkitektura dituzten, neurona sare horiek nolakoak diren...". Tamalgarrizat jo du hori, zientziak irekia izan behar duela defendatzen baitu azpeitiarrak, "baina enpresa pribatu horiek beste bide bat hartu dute, horrela daude gauzak eta ez dago besterik".


Azkenaldian gehien garatu eta herritarren eskura jarri dutena adimen artifizial sortzailea izan da, eta hori ez zutela espero adierazi du Azkunek. "Paradoxa bat gertatu da. Tradizionalki

pentsatu izan da adimen artifizialak eta antzeko sistemek, funtsean makinek, askoz errazago egingo zituztela guk intelektualki maila baxukotzat jotzen ditugun lanak. Baina gertatu dena justu kontrakoa izan da; guretzat intelektualki maila altukoak diren gauzak egiteko gai direla makinak. Adibidez, marrazki bat egitea, poema bat idaztea, melodia bat sortzea... Esku artean ditugun adimen artifizialeko sistemek lan horiek oso ondo egiten dituzte, eta, oro har, zientzialarien komunitateak ez zuen horrelakorik espero".

Baina Azkuneren irudiko, garrantzitsua da hori guztia testuinguruan jartzea; izan ere, azpeitiarraren hitzetan, "adimen artifizial sortzailea izateak ez du esan nahi sormena daukanik". Eta eztabaida sakonago bat atera du mahai gainera: zer den sormena. "Guk sormena al daukagu? Baietz uste dugu; baina zer da sormena? Nik dakidala, oraingoz inork ez du ondo definitu. Gertatzen dena da, sistema horiek eskura duten datu sorta mardularen ondorioz eta beraien arkitekturak diren bezalakoak direlako, gaitasun handia daukatela modalitate desberdinetako informazioa sortzeko –testuak, audioak edo musika, irudiak–, eta, gainera, oso modu txukunean egiten dituztela lan horiek". Horren inguruan eztabaida dagoela aipatu du Azkunek. "Sortzen dituzten horiek zenbateraino diren berriak, edo entrenatzeko erabilitako datu pila horretatik ateratakoarekin sortutako segida bat diren. Baina gizakiak zerbait sortzen duenean ere sor liteke zalantza hori. Musika talde bat entzun, eta zenbat aldiz esaten da beste talde baten eragina daukala? Zer esan nahi du horrek, kopiatzen ari direla? Ez, baina izan lezake bestearen estiloa edo ukitu bat".

Beldurra pertsonei, ez teknologiari

Adimen artifiziala azkar eta asko garatu da azken urteotan, baina hastapenetan besterik ez dagoela esaten dute adituek. "Adimen artifizialaren asmoa da gizakion adimenaren mailakoa den adimen bat lortzea, edo harago joatea, baina makinak erabilia", zehaztu du Azkunek. Haren ustetan, "adimen artifizialak egunen batean gizakiaren adimena gainditu egingo du", baina hori bere ustea bakarrik dela azpimarratu du. Hori noiz izango den iragartzea, ordea, zaila iruditzen zaio. "Nik urruti ikusten dut makinek gizakia gainditzea ezaugarri mailan. Oraindik ere gauza asko falta zaizkigu gizaki baten adimenaren pareko zozortara iritsi ahal izateko, baina ez dakidana da hori urruti dagoen denboran. Gauzak hain azkar doaz, hainbeste diru dago arlo honetan eta hainbeste jende lanean, ez nintzateke ausartuko esatera hori bost edo hamar urte barru izango den, ez baitaukat ideiarik".




Adimen artifizialari beldurrik izan behar al zaion galdetuta, ezetz esan du Azkunek. "Adimen artifiziala, beste gauza asko bezala, erreminta bat da, eta beldurra pertsoneri eduki behar diegu, ez adimen artifizialari. Egongo dira adimen artifiziala ondo erabiltzen dutenak eta gaizki erabiltzen dutenak, eta horregatik, arautu egin beharko dira zenbait gauza, baina nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo". Adimen artifizialak hori baino "arrisku ukigarriagoak, gertukoagoak eta ezagunagoak" badituela ohartarazi du. "Jende apokaliptiko horri kasu egiten ari garen bitartean, ari gara benetako arazoak diren horiek albo batera uzten, askoz hobe genukeenean horiek konpontzen saiatzea". Arrisku horiek zeintzuk diren ere adierazi du. "Adimen artifiziala erabil daiteke guk gizarte bezala dauzkagun hainbat alborapen anplifikatzeko; adibidez, sexismoa eta arrazakeria. Gaur egun esku artean ditugun adimen artifizial sistemak guk sortutako testuekin entrenatzen direnez, dagoeneko baditugun joera negatiboak bere egiten ditu, eta horrez gainera, areagotu edo aplikatu ere egin ditzakete". Adibide bat ere eman du: "Demagun informatikari bat behar duzula eta adimen artifizial sistema bat erabiltzen duzula jendea kontratatzerakoan curriculumak jaso eta lehen galbahea pasatzeko. Adimen artifizialak guk idatzitako testu asko irakurri dituenek, informatikaria gizonarekin erlazionatzen du eta ez emakumearekin; horregatik, aukera handiak leudeke emakume askoren curriculumak alboratzeko. Hori adimen artifizialari erabilera txarra ematea litzateke, jakitun garela-ko arazo hori existitzen dela. Jendea ari da ikertzen hori konpontzeko, baina badaukigu badaudela enpresak sistema horiek erabiltzen ari direnak jendea kontratatzeko".

Beste arriskuetaiko bat sistema horiek esaten dutena itsu-itsuan sinestea dela ohartarazi du azpeitiarrak. "OpenAI enpresako CEO Sam Altmanek behin esan zuen ChatGPT erabil daitekeela medikuaren kontsultara joatea ordezkatzeko, eta hori izugarrizko astakeria da. Baina ez dago esaterik hori arazo berria denik: norik ez dio galdetu Googleri belaunean duen mina zer izan ote daitekeen? ChatGPTrekin are errazagoa da hori, berarekin hitz egiteko aukera ematen dizulako". Azkuneraren hitzetan, jendeak ulertu behar du horiek erreminta batzuk direla, eta esaten dutena oso urruti egon daitekeela errealitateetik edo oso gertu, gauza batzuetan asmatzen dutela, baina beste gauza batzuetan ez. "Azken baten, guk geuk oso kritikoak izan behar dugu, ezin dugu oso-osorik irentsi esan diguten dena, hanka sartze handi bat egiten ariko baikinake, eta gauza bera Googleri eta sare sozialei dagokionez ere. Bada jendea sare sozialetan ikusten duen guztia zuzenean egiazkotzat jotzen duena, ezer zalantzan jarri gabe. Gogoan dut irailaren 11ko atentatuen bueltan ere gertatu zirela horrelakoak. Bideo bat zabaldu zuten esanez talibanak atentatuak ospatzen ari zirela, eta bitartean, bideoa bost urte lehenago grabatutakoa zen eta palestinar batzuk ageri ziren festa batean. Orain *fakenews* gisa ezagutzen diren gezurretako istorioak beti egon izan dira, eta aurrerantzean ere egongo dira". Adimen artifiziala erreminta oso lagungarria izan daitekeela esan du ikertzaileak, baina ez edozer gauzatarako; "jakin egin behar da zertarako izan daitekeen ona eta zertarako ez".

"Adimen artifizialari ez diogu beldurrik izan behar, pertsoneri izan behar diegu beldurra"

"Mezu apokaliptikoak ematen dituzten horiei, nik ez nieke batere kasurik egingo"



Andoni Sudupe (Azpeitia, 2002) Adimen Artifizialeko Gradua egiten ari da EHUren Donostiako Informatika Fakultatean. Lehen promozioiko ikaslea da, eta ondo bidean, hasi berri duen ikasturtea izango du azkena.

Nolatan erabaki zenuen Adimen Artifiziala ikastea?

Informatika Ingeniaritza ikastea pentsatzen ari nintzen, ordenagailuak eta matematikak gustatzen zaizkidalako, baina Ingeniaritza Eskolako ate irekietako saioan adimen artifizialaren inguruko hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen, eta konbentzitu egin ninduten. Adimen Artifizialeko ikasketak Informatika ikasketen antzekoak dira, baina hardwareari lotutako gaiak gutxiago lantzen dira, eta matematikak gehiago. Informatikan esparru asko ukitzen dituzte, eta horien artean bat da adimen artifiziala; Adimen Artifizialeko ikasketak, aldiz, espezializatuagoak dira.

Zer ikasi duzu hiru urteotan?

Lehendabiziko bi ikasturteetan, gehienbat informatikari lotutako gauzak landu genituen, eta ia hasi ginen adimen artifizialean sakontzen, gaur egun dauden ereduak, horien arkitekturak, arkitektura bakoitzaren puntu interesgarrienak eta abar

"ERA GUZTIETAKO ENPRESAK ARI DIRA ESPARRU HONETAN URRATSAK EGITEN"

"Ia ezinezkoa da aurreikustea ikasturte bakoitzean zer landuko dugun"

ANDONI SUDUPE

ADIMEN ARTIFIZIALAREN GRADUKO IKASLEA

ikusten nahiz horiek nola programatzen diren eta nola erabiltzen diren ikasten. Adimen artifizialaren barruan adar asko daude –hizkuntza, irudia, osasuna...–, eta eredu asko ere bai; adibidez, azkenaldian horren ezagun egin den Chat GPT eredu bat da.

Adimen Artifiziala ikasten hasi zinetik, izugarri garatu eta aldatu da esparru hori.

Bai, esan liteke ordutik hona garatu dela ia dena; duela lau urte bazegoen zerbait, baina booma harrezkero gertatu da. Ondorioz, gure ikasketak ere erabat aldakorrak dira. Irakasleek ikasturtearen hasieran esaten digute irakasgai bakoitzean zer lantzen hasiko garen, baina ez ikasturtean zehar zer landuko dugun; ia ezinezkoa da hori aurreikustea.

Bizitza guztian ikasten jarraitzeko prest al zaude?

Adimen artifizialaren arloan lan egin nahi badut, derrigorra izango dut. Esparru honetan, hilabete batez deskonektatuta egotea nahikoa da bueltan zeure burua galdu-galdu eginda ikusteko.

Zein arlotan lan egitea gustatuko litzazuke?

Praktikak Elgoibarko [Gipuzkoa] Ideco enpresan egin ditut, gradu amaierako lana han egiteko aukera eskaini didate eta ez litzaidake axolako lanean bertan segitzea ere. Robotak erabiliz, enpresei irtenbide aurreratuak eskaintzea da han egiten dutena, eta gustuko dut esparru hori.

Ez dirudi lan aukerarik faltako zaizuenik...

Ez dirudi, ez. Adimen artifizialak ekar dezakeen eraldaketaz jabetu ahala, era guztietako enpresak ari dira esparru horretan urratsak egiten.

Bada motiborik adimen artifizialari beldurrik izateko?

Adimen artifizialari ez, baina agian bai batzuek eman diezaioketen erabilerari.



Abokatua eta adimen artifizialean aditua da Elen Irabazabal (Zarautz, 1990). Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta doktoregaia da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Abokatuei programatzen irakasten die eta *La inteligencia artificial explicada para abogados* liburuaren egilea da.

Noiz hasi zinen adimen artifizialean interesatzen?

Zuzenbidea ikasi ostean, Nazioarteko Harremanetan graduondokoa egin nuen Madrilén, eta gero, Indiara joan nintzen bidaian. Han atentzioa eman zidan herritarren oinarritzko beharrak estali gabe egon arren, denek zutela smartphone bat esku artean. Zarautzera itzuli nintzen eta bizpahiru urtean arlo juridikoan aritu nintzen lanean, nahikoa denbora jabetzeko zein gaizki funtzionatzen duen esparru horrek. Garai hartan dagoeneko Big Dataz hitz egiten zen eta adimen artifizialaz hitz egiten ere hasita zeuden adituak. Petrolio berria datuak izango direla eta horrelakoak esaten dituzte, eta neure erara ikertzen eta ikasten hasi nintzen.

Madrilera bueltan, esparru horretan sakontzen jarraitu nuen, zibersegurtasunaren

"Adimen artifizialaren inguruan, eztabaida lasaiagoa behar dugu"

ELEN IRAZABAL

ABOKATUA ETA ADIMEN ARTIFIZIALEAN ADITUA

arloan lanean hasi nintzen, eta abokatuei ikastaroren batzuk emateko deitzen hasi zitzaizkidan. Jauzia, ordea, pandemia garaian egin nuen: autonomo egin nintzen, eta *Abokatuentzako konputazio zientziak eta programazioaren logika* ikastaroa ematen hasi nintzen. Adimen artifizialaren inguruko kontzeptuak abokatuei beraiek ulertzeko moduan azaltzen saiatzen naiz.

Azken hilabeteetan adimen artifizialaren eztanda gertatu da, eta ekar ditzakeen onurez ez ezik, arriskuez ere ohartarazi dute batek baino gehiagok, nahiko mezu katastrofisten bidez, gainera. Beldurtzeko motiborik badela uste duzu?

Gaur egun eta epe ertainera, adimen artifizialak ekarriko dituen onurak kalteak baino askoz handiagoak izango dira. Adibidez, osasungintzan, minbiziaren kontrako borrokan eta, aurrerapen handiak egiten ari dira adimen artifizialari esker. Baina horrek ez du kentzen arriskuak ere badituenik. Epe luzera begira, esaterako, ez dago batere argi zer gerta daitekeen, ez baitakigu noraino iristeko gai izango garen. Gizakien adimena gaindituko duen adimen artifizial bat sortu nahian gabiltza, baina ez dakigu lortuko dugun ala ez, eta lortzen badugu zertara eramán gaitzakeen horrek eta zein izan daitezkeen ondorioak.

Adimen artifiziala arautzeko beharra nabarmendu dute batek baino gehiagok.

Gaur egun ba al dago adimen artifizialari eragiten dion legedirik?

Adimen artifiziala arautuko duen legedia lantzen ari dira Europako Batasunean, baina egun indarrean dauden lege batzuek dagoeneko eragiten

"EPE LUZERA BEGIRA GERTA DAITEKEENA EZ DAGO BATERE ARGI, EZIN DA AURREIKUSI!"



diote adimen artifizialari; esate baterako, datu pertsonalen babesperako legeak eta zibersegurtasunaren ingurukoak.

Europako Batasunean adimen artifizialaren inguruko araudia lantzen ari direla esan duzu. Nolako izan behar luke araudi horrek?

Adimen artifizialaren inguruan legedi espezifikoa bat lantzen ari dira, bai, baina horrek ez du esan nahi araudi hori ona izango denik, eta adimen artifiziala behar bezala eta egoki arautuko duenik. Aurrena, indarrean dauden legeek adimen artifizialari nola eragiten dioten zehatz-mehatz jakiteko azterketa bat egin beharko litzatekeela uste dut, ikusteko zer dagoen eta zer behar den. Adimen artifiziala arautzeko lege bat egingo dute, baina adimen artifizialaren esparruan gabiltzanon jarduna lege horrez gain beste batzuek ere arautuko dute, esaterako, nire kasuan, autonomoen inguruko legediak. Batak besteari nola eragingo dion aztertu gabe jarduteak dena lausotuko du eta ez zait iruditzen prestatzen ari diren legedi hori behar bezain argia eta eraginkorra izango denik.

Arautu al daiteke horren dinamikoa den zerbait?

Adimen artifizialaren inguruko proposamena pasa den urteko apirilean atera zen eta oraindik ez dago indarrean. Hau da, urtebete baino gehiago pasatu da, eta oraindik ez dago garbi noiz jarriko den indarrean. Prozesu legegileak motelak dira, burokratikoak, baina adimen artifizialak ez du itxarongo.

Adimen artifiziala noraino iritsi daitekeela uste duzu? Ikusten al diozu mugarik?

Adimen artifizialaren inguruan iragarpenak egitea oso zaila da, ezinezkoa. Uste dut inor gutxik espero zuela adimen artifiziala horren indartsu sartuko zen esparruetako bat arte sorkuntzarena izatea, eta begira zer ari den gertatzen. Gaur egun baditu mugak, muga filosofikoak, muga fisikoak eta abar. Gakoa izango da muga horiek gainditzeko gai izango garen ala ez, eta gainditzea lortzen badugu, noiz izango den hori.

"ADIMEN ARTIFIZIALAREN
INGURUKO LEGE BAT
EGITEAK EZ DU ESAN NAHI
HORI ONA IZANGO DENIK"

Zure ustez, gaur egungo ezagutzaren mugak modu autonomoan gainditzeko gai izango al da?

Hori ikusi egin beharko da, zaila da horrelako zerbait aurreikustea. Printzipioz, adimen artifiziala gure adimena baino azkarragoa bada, guk espero ez ditugun edo espero ezin ditugun gauzak ager daitezke.

ChatGPT bezalako tresnak gizakiek sortutako ezagutzaz elikatzen badira, nola eman dezake urrats bat harago?

Adimen artifizialaren ikaskuntza prozesua eta gurea ez dira berdinak. Adimen artifizialak datu bolumen handietatik ikasteko gaitasuna du, eta gizakioi ez bezala, adimen artifizialari ez zaio ezer ahaztuko. Hori da iragarri ezin den bere osagaietako bat eta arrisku gehien sor ditzakeena, ez baikara gai horrek izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko.

Argi dago adimen artifiziala aukera asko eskaintzen dituen tresna dela. Hortaz, alderdi batzuetatik zergatik ari dira adimen artifizialaren inguruko ikuspegi ezkorra indartu nahian?

Gaur egun beldur handiegia dago adimen artifizialaren inguruan, eta eztabaida lasaia gaur behar dugu. Onurak arriskuak baino handiagoak izan arren, egia da arriskuak ere hor daudela, eta normala da jendea kezkatuta egotea; adibidez, teknologia horrek bere lanean izango duen eraginarekin. Adimen artifizialak gaur egun egiten ditugun lanen balioa aldatu egingo du. Adibidez, sektore juridikoan, nik ezagutzen dudana horretan, gaur egun oso lan automatikoak egiten dituzten horiek dira beldur gehien izan beharko luketenak. Izan ere, abokatu baten balioa ez datza informazioa ekoiztean, hori adimen artifizialak egin dezake.

Hainbat lanbide eraldatuko ditu, baina enplegu berriak ere sortuko ditu.

Bai, noski. Internet iritsi zenean ere antzeko zerbait gertatu zen. Asko ziren teknologia horrek izan zitzakeen mehatxuak edo arriskuak salatu zituztenak. ■

Lurrak eta urak aztergai

Esti Garcia, kutsatuta egon daitezkeen lurren eta lurrazpiko uren ikertzailea


Ikasketak amaitu aurretik hasi zen kutsatuta egon daitezkeen lurrak eta lurrazpiko urak aztertzen Esti Garcia. Unibertsitate garaian Geolan enpresarekin hasi zen mundu hori ezagutzen bekadun modura, eta jada hemezortzi urte daramatza bertan.

Testua: **Intza Trula.**
Marraskia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño.**

Ez da egunerokoan maiz entzun ohi den lanbidea Esti Garcarena, kutsatuta egon daitezkeen lurrak eta lurrazpiko urak aztertzea baita bere ogibidea. Hasiera batean Bizkaiko enpresa batean hasi bazen ere, argi zuen familia bat osatu eta etxeoengandik gertu lan egin nahi zuela, eta gaur egun Donostiako enpresa batean dihardu lanean.

Unibertsitate ikasketak hautatzerako orduan, beste gazte askok bezala, buruan hainbat aukera ibili zituen Garciak, baina azkenerako, geologia ikasketak egitera animatu zen; Leioako (Bizkaia) kanpusean egin zituen bost urte, eta azkenurreko ikasturtean izan zuen lur kutsatuen azterketaren berri: "Geolan elkartearekin batera enpresa ezberdinentzat lanak egiten genituen, eta horietako batean gure lurraldean potentzialki kutsatuak egon zitezkeen lurren inbentarioa egiteko aukera suertatu zitzaigun". Ez zion ezetzik esan aukerari, eta bekadun modura inbentario hori egiten hasi zen zumaiarra. Hala hasi zen lan mundua ezagutzen, pixkanaka-pixkanaka esperientzia irabazten joan zen, eta hemezortzi urteren ostean oraindik ere ogibide duen esparrua ezagutu zuen.

Industria enpresa edo tailer batek bere jarduera amaitzen duenean, hango lurren eta lurrazpiko uren inguruko azterketa egiten du Garciak, "datorrenaren osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua izan daitekeen ala ez jakiteko". Lehen pausoa lurra eta lurrazpiko ura kutsatuta dauden edo ez jakitea dela azaldu du zumaiarrek, eta horretarako zundaketak egiten dituztela: "Lurrean



irrimara



zuloak egiten ditugu, ondoren lur laginak atera eta laborategira bidaltzeko". Jarraian, laborategian aztertzen dituzte laginak, eta emaitzak jasotzen dituztenean txostenak osatzeari ekiten diote Garciak eta bere lantaldeak. Egitekoak ez dira hor amaitzen, ordea; izan ere, txostenak Eusko Jaurlaritzara bidaltzen dituzte amaitu bezain laster, beste ebaluaketa bat egiteko. Hori horrela, ikerketaren emaitzak araudiaren parametroen barruan sartzen badira, ziurtagiri bat jasotzen du eremuak, "hurrena datorrenak beste zerbait eraikitze baimena" duela ziurtatzen duena. Aitzitik, eremua kutsagarria bada, neurriak hartzen direla zehaztu du Garciak: "Indusketa egiten dugu, eta ateratako luraren ondoren berriz ere laginak hartzen ditugu, indusketarekin kutsadura joan den ala ez jakiteko". Orobat, lurrazpiko uraren

jarraipena ere egiten dutela gaineratu du zumaiaarak, "lurra kutsatuta baldin badago, urak kutsadura hori zabaldu duen ala ez jakin behar delako", hain zuzen ere.

Ez gara egun batetik bestera amaitzen diren lanez ari; ikerketa prozesuarekin hasten diren momentutik Eusko Jaurlaritzara txostena bidaltzen duten arte bi-hiru hilabete pasatzen direla azaldu du Garciak, baina ondoren bertan daukaten arazoaren inguruan ere mintzatu da: "Eusko Jaurlaritzan teknikari gutxi daude lanean, eta urtean 200 txosten inguru jasotzen dituzte; beraz, atera kontuak". Dagoen lan kargarako "langile gutxi" daudela iritzi dio geologoak, eta txostenak Eusko Jaurlaritzara iristen direnean prozesua "geldotu" egiten dela dio, langile falta horrengatik. Geologoen gain, fisikariek eta ingeniariak ere osatzen dute prozesu honetako taldea, besteak beste.

Zabortegeiak

Aztertzeko eremurik zailenak zabortegeiak eta industria zaharrak direla azaldu du geologoak. "Zabortege zahar batzuek ez dute gaur egungoek duten iragazgaitasuna eta jarraipena", kontatu du Garciak. Horrez gain, 40 metro sakonerako hondakinak dituzte batzuk, eta "horiek ikertzea oso garestia eta zaila da", protagonistaren esanetan. "Gaur egun industria enpresa berri bat eraikitze baimenak ez dira lehen bezain erraz ematen; kareharria



eta kobazuloak egon daitezkeen eremuetan, adibidez, guztiz debekatuta dago eraikitzea", esan du zumaiarrak.

Gori-gori dago azken urteetan zabortegien gaia, eta herritar askok du zabortegien inguruko kexa. Inork bere etxe ondoan zabortegi bat nahi ez badu ere, gaur egun dagoen zabor guztia kudeatzeko beharrezkotzat jotzen ditu Garciak: "Erabat ulertzen dut jendearen jarrera, baina gaur egun ez dugu zaborra beste era batera kudeatzeko teknologiarik". Gainera, zaborraren gaia asko lantzen ari direla aipatu du, eta zabor hori beste produktu batean bihurtzea dela asmoa, baina, "orainxe bertan posible izan ez arren" bere esanetan: "Industriek zabor ugari sortzen dute, eta hori nola edo hala kudeatu beharra dago", iritzi dio. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan beste leku batzuetan baino lanketa eta jarraipen handiagoa egiten dela dio geologoak, baina herritarrek gaiaz duten jarrera ere garrantzitsua dela iritzi dio: "Garrantzitsua iruditzen zait sozialki presio bat egotea honen inguruan. Lan handia dago oraindik egiteko".

Ikasteko grina

Geologia ikasketak egin arren, Garciak izan omen zituen buruan bueltaka beste bi aukera garbi unibertsitateko karrera aukeratzeko orduan, arlo guztiz ezberdinak gustatzen zitzaizkiolako gaztetan: alde batetik, kirolarekin lotura zuen zerbait ikastea pentsatu izan zuen, beti gustatu izan baitzaio kirol guztiak probatzea. Eta, bestetik, Haur Hezkuntza: "Beti pentsatzen dut lanik gabe geratzen banaiz Haur Hezkuntzako irakasle izateko ikasketak egingo ditudala", azpimarratu du Garciak.

Aitortu du, gainera, hasiera batean Geologia ikasketak amaitutakoan bere asmoa zela institutuko irakaslea izateko ikasketak egitea, baina "hain gazte diru sarrerak ikusten hasitakoan" alboratu zuen erabakia. Hala eta guztiz ere, ez du guztiz baztertzen ideia: "Agian ez naiz inoiz Haur Hezkuntzako irakasle izango, baina formatuko nintzateke, asko gustatzen baitzait", aitortu du. ■■■





Esti Garcia Osa

- **Adina:** 45 urte.
- **Ikasketak:** Geologia.
- **Lanbidea:** Kutsatuta egon daitezkeen lurren eta uren ikerketa.
- **Geologoa ez banintz...** Haur Hezkuntzako irakaslea izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Surfa egitea.



Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Hitz ezkutak

Zer diote gure neska-mutiek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduz ari direla biak.

Mezu gordea


Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esaera zahar bat agertuko zaizu.





BAI POLITA
HITZ HORI!

Z I R I K A K A T O L



Nahas-mahas

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

Engainagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honoko zortzi

irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



Bilatu

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoaren arrautzak, zizak, fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

Maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

**Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)**

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behea · Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com · @oreka.kiropraktika



**OSÁ
BERNIZATUAK**

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortá Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 88 · Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com · e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 · 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 · 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaraia

taberna · jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia

Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izusterri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behea -Tel. 943 573 905



UKENDU

PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN

taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 · 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

yoana

ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Uppia Plaza 3 · 943-86 23 87 ZUMAIA

Eskolaz kanpokoak



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Eskolaz kanpoko ekintzak oso arrakastatsuak dira gure gizartean. Geroz eta aukera gehiago dago, eta oso normalizatuak daude. Ekintza horiek ezaugarri asko dituzte, eta ezaugarri horiek ezagututa, errazago izango zaigu aukeratzea eta haietan parte hartu edo ez erabakitzea. Hona hemen ekintzen inguruan ezagutu behar ditugunak:

-Ez dira derrigorrezkoak. Esan bezala, oso normalizatuak daude eta, askotan, ez gara ondo sentitzen gure seme-alabek ez badituzte eskolaz kanpoko ekintzak egiten.

Gogoratu haurrak ordu asko pasatzen dituela eskolan lanean, beste guztia aukerazkoa dela, eta beharren arabera aukeratuko beharko genukeela.

-Haurrak bere burua hobeto ezagutzeko balio dezake.

Geure burua egoera, espazio, eta testuinguru ezberdinetan ikusteak, gu hobeto ezagutzera eramaten gaitu. Egoera berriak bizitzeak aukera berriak sortzen ditu, eta hori bizitzako momentu askotan beharrezkoa dute haurrek.

-Egunerokotasuna kudeatzeko zailtasunak sortzen dira batzuetan. Alaba ingelesera bostetan, semea pianora eta laurdenetan, gero gainera logopedara eraman, eta... Askotan ordutegiak estresa bihurtzen dira, eta horrek,

egunaren bukaeran, familiaren erlazioetan gatazkak sor ditzake, nekeagatik batez ere. Ez du merezi. Hau ere baloratu behar dugu.

-Haurrari beste haur batzuk ezagutzeko aukera ematen dio. Onuragarria da gehienetan pertsona ezberdinak ezagutzea, erreferentzia ezberdinak edukitzeko. Nortasun ezberdinak, erlazio ezberdinak...

-Jolas librerako denbora kentzen dute. Jolas librea da haurrarentzako ekintzarik aberasgarriena, batez ere bere bizitzaren lehenengo sei urteetan. Inguru seguru batean eta gurasoen gertutasuna badute, testuinguru horri eman beharko genioke garrantzia.

-Haurrari talde bateko kide izateko aukera ematen dio.

Eskolaz kanpoko ekintza gehienak taldekako ekintzak izaten dira, eta talde bateko partaide izatea haurraren autoestimurako onuragarria izaten da gehienetan, gustura dagoen bitartean, noski.

-Ez badu gustuko, bere autoestimua ahuldu dezake. Haurrak gustura egon behar du

**EKINTZA BAKOITZEAN
ROL BAT GARATUKO
DUGU; HORREK GURE
AUTOESTIMUAN
ERAGINA IZANGO DU**

ekintza horietan. Gure bizitzan rol ezberdinak garatzen joango gara, eta rol bakoitzean lortzen dugun arrakastaren arabera, gure autoestimua altuagoa edo baxuagoa izango da. Kanpo ekintza bakoitzean rol bat garatuko dugu, eta horrek gure autoestimuan eragina izango du. Horregatik, garrantzitsua izango da ekintza horiek gehitzeko izatea. Bestela, haurraren autoestimua minduko da.

-Gustura badago, bere autoestimua indartu dezake.

Era berean, haurra gustura badago eta rol horretan arrakasta lortzen badu (gustura egotea alegia) bere autoestimua goraka egingo du.

-Pantailak ikusten egotea baino hobea da.

Familia bakoitzaren egoera oso ezberdina da eta batzuetan ez dugu aukera haurrei estimulazio egoki bat eskaintzako: denbora falta, zaintzaile oso helduak edo estimulatzeke errekurtsorik gabekoak... eta haurrek denbora asko pasatzen dute bakarrik telebista aurrean. Horrelako kasuetan, kanpo ekintzak aukera oso ona izan daitezke.

Bukatzeke, gogoratu, garrantzitsuena zer den ekintza horiek aukeratzeko orduan: haurra gustura egotea eta jolas librerako denbora gehiegi ez kentzea.

Alkatearen aginduz

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@IMANOLAZKUE

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

Aurreko batean *publikatak* ikusi genituen, edo nola agintariak elizako apaizez eta pulpituaz baliatzen ziren herritarrei zerbait jakinarazteko edo eskatzeko. Baina XIX. mendeak aurrera egin ahala, garaiak aldatzen joan ziren, gero eta jende gehiagok zekien irakurtzen, gero eta zumaiar gehiagok zekien gaztelaniaz, eta udala bestelako baliabide batzuk ere erabiltzen hasi zen: ediktuak, pregoiak, bandoak, prentsa idatzia... Horietako adibide batzuk ekarriko ditugu, eta egiaztatuko dugu euskara presente zegoela horietan.

Santa Klara ezin saldu

1771n itxi zuten Santa Klara ermita, eta 1841ean udalak erabaki zuen hura saltzea, diru eremian zegoelako, San Pedro eliza berritzeko lanak finantzatzeko. Saltzeko, lehenengo udalak baimena eman zuen, eta ondoren enkantea antolatu zuten; aurretik, horren berri eman zieten herritarrei "[con la] fijación de edicto en el pasage publico y acostumbrado de esta villa"¹.

Enkanteko ekitaldian, idazkariak argi eta garbi eta denek ulertzeko moduan adierazi zuen zer preziotan eta zer baldintzatan zegoen salgai: "Se procedió a la venta en público remate de la casería de Santa Clara y sus pertenecidos, y **aunque yo el Secretario leí y dí a entender en lengua vulgar a los concurrentes** a dicha sala de la tasación y evaluación de dicha casería no hubo postor alguno". Alegia, herritarren hizkuntzan (euskaraz) azaldu zien idazkariak herritarrei, denek behar bezala ulertzeko.


Publikatetatik banakolaria

Udal agirietan begiratuta, XIX. mendearen amaieran ere oraindik azaltzen dira *publikatak*: 1886an, Pasaian marinel batzuk ito eta haien familiei laguntzeko dirua bildu nahi zutela-eta, "se le manda copia al Señor Vicario de esta villa para que el Domingo publique desde el púlpito"²;

IDATZIZ GAZTELANIA HUTSEAN EGITEN ZIRENETAKO BATZUK EUSKARAZ EGITEN HASI ZEN UDALA

1906an, komisió probintzialak nekazaritza sindikatuaren eta kuxtaren estatutuak bidali zituela-eta: "cada ejemplar se les remita a los señores curas párrocos del Valle de Oiquina y barrio de Artadi con el fin de que le enteren de su contenido a sus feligreses"³.

Baina denborarekin, publikatak urritu eta bandoen erreferentziak ugaritu egiten dira udal agirietan; adibidez, 1894an: "Acordaron se publique un bando prohibiendo limpiar los pescados en las fuentes, lavaderos ni otros lugares públicos fuera de la ría". Gainera, bandoen berri emateko, udalak arduraduna izendatu zuen, eta hark zer hizkuntzatan jakinarazten zituen ebidentziarik ez baldin badaukagu ere, pentsatzekoa da euskaraz (ere) egingo zituela; hauxe da 1907ko zita bat: "De la cuenta de los bandos oficiales publicados por el pregonero Don Pedro Arrizabalaga y que importa pesetas 8,50"⁴; urte batzuk geroago, 1931n, zertxobait gehiago ordaindu zioten: sei hilabeteko pregoiengatik, 25,50 pezeta. Horiez gain, udalak paperak jartzen zituen leku jakinetan: "Quedan enterados y acuerdan que dos ejemplares se





expongan al público en sitios acostumbrados de anuncios" ⁵.

Pixkanaka, lehen idatziz gaztelania hutsean egiten zirenetako batzuk euskaraz ere egiten hasi zen udala, eta horren adibideak dira dokumentu batzuk, *banakolea* ⁶ izenburupean. Horietako zenbait hirigintzako paperen artean daude Udal Artxiboan ⁷, eta euskaraz eta gaztelaniaz

daude: 1916koan, udalak jakinarazi zuen Arbustaingo basatza edo lokazia betetzeko lanak errematera aterako zituela; 1917koan eta 1918koan, Zumaiaiko alkateak, Arrangoletako zenbait lursailen subasta iragarri zuen. Euskarazko bertsioan, gaurko begientzat (eta ordukoentzat?) ulergaitzak zaizkigun zenbait hitz ageri dira: *bazku* (elkarte),

endore (alkate), *idazkola* (administrazio), *ikurritz* (goiburua), *ilbeltz* (urtarril), *ingurratz* (plegu)... Hauxe 1917ko garilaren (uztailaren) 26ko agiri baten hasiera, Arrangoletako lurraz zatika enkantean salduko zituztela jakinarazteko:

"Errico Banakolea
Zumaya'ko Udala
Bazkuk onen erabakiz,
datorren Irailla'ren 1º eguneko
goizeko amaiketean izango da
Udal'etxian, hamasei etxaleku,
geyena demanari saltzia,
erriyak dauzkenetatik
"Arrangoleta'ko Zabalduran"
Endore edo onen ordezko
ziñegotzi'ren bat maiburu dala;
izakera eta ganerako argibidiak
egongo dira egun aurre arte
agiriyan erriko idazkolan,
aztertu nau dituanentzat (...)" ⁸.

Bandoak

Bestalde, bereziki aipagarriak dira II. Errepublikaren garaian, 1931tik 1936ra, udalak argitaratutako bandoak ⁹. Izan ere, gehien-gehienak eskuz idatzita eta euskaraz eta gaztelaniaz daude jasota Udal Artxiboan. Gai ugari eta desberdinak jorratzen dituzte: Estatutuaren plebiszitua onartu zelako jai egingo zela hurrengo egunean, karabineroek tiro-praktikak egingo zituztela Debako hondartzan eta kontuz ibiltzeko itsasoan, solfeora joan nahi zuten mutilek izena

Endore jaunaren aginduz, adierazteu det:
 Gobernadore jaunaren agindu bat artu duala es-
 nar: biako egumian ~~egin leikela kolgaduak~~
~~ipuzi~~ bakanik ipuzi leikela, udal etxietan
 eta ~~en~~ beste leku "ofizialetan," bayertuta
 dauden ikurⁱⁿ edo banderen koloretako
~~kol~~ apaingar^{ari} edo kolgaduak. Eta go-
 gos⁷ sigortuak raugo duala, ~~best~~
~~metetakuak~~ ~~ipuzien~~ ~~dituzteuak~~
 agindu au auzit^{en} duteuak. -
 Urtaila ren 30. ^{au}

emateko, Errepublikako lehendakaria zetorrela eta ongi-
 etorria emateko deia, kontribuzioa oraindik ordaindu
 ez zutenei abisua lehenbailehen ordaintzeko,
 denboraleak kaltetuei jakinarazpena, abesbatzak
 emanaldia egingo zuela, herriko lanen arduradun
 izateko lanpostua atera zuela udalak, txertaketak,
 obrak, ur mozketak... Bando horiek urtez
 urte oso antzekoak dira, euskaraz eta gaztelaniaz,
 eta etenaldi edo aldaketa izan zen Gabriel Vallejo
 Bretón alkate izendatu zutenean, 1935ean, garai
 horretan ez baitago euskarazkorik.

Goiko irudiko horixe da, adibidez, 1932ko bando
 bat, akordarazteko leku ofizialetan

baimendutako banderak edo oihal zintzilikariak
 baino ezin zirela jarri.

Azken bando edo agiri horiekin, suma daiteke
 aldaketa nabarmen bat: lehen, publikatak egiten
 ziren herritarrek jakinaren gainean egoteko eta
 ezinbestean euskaraz, herritarrek besterik ez
 zekitelako; XX. mendearen hasieran, berriz,
 jakinarazpen horiek idatziz ere egiten hasi ziren,
 gero eta herritar gehiagok zekielako irakurtzen
 eta idazten, eta idatzizkoan euskara bere lekua
 hartzen joan zen, bazegoelako euskararekiko
 kontzientziarioa eta euskara bultzatzeko eta
 indartzeko borondatea eta nahia.

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa 71.03, 1841-04-11.

² ZUA 2823 (151V), 1886-04-29.

³ ZUA 2832 (16), 1906-01-11.

⁴ ZUA 2832 (477), 1907-06-27.

⁵ ZUA 2832 (16), 1906-01-11.

⁶ Banakol(e)a: administrazioa izendatzeko neologismoa. Idazkol(e)a zen erredakzioa, eta banakolea administrazio bulegoa. Banatu+ola, banatzeko lekua edo administrazioarearen lekua.

⁷ ZUA 319.7, 1917-07-26 eta beste data batzuk (adibidez, ZUA 326.3, 1916-05-14).

⁸ Ibidem.

⁹ ZUA 336.

Salto!

ARGAZKIA: IBAI ARTETXE

TESTUA: OIHANA ARTETXE

Gaur kalera irten naiz
errealitateaz urruntzeko gogoz,
egun berri bat egun desberdin
bilakatzeko irrikaz.

Dantza eta salto, salto eta
dantza! Egunerokotasuna
gainetik astindu nahian...

Hara! Eta horma-irudi hau?
Zer adierazi nahiko ote du?

Beste errealitate baterako ate
bat ote?

Ez dakit, baina nire soinekoa
margoarekin mimetizatzen dela
dirudi...

Eta hau bada nik bilatzen
nuena? Hau bada errealitate
astun honetatik urruntzeko nire
aukera?

Margoak iman bat bailitzan
erakartzen nau...

Eta irensten banau?

Salto egiten badut margoan
sartuko ote naiz Mary Poppins
bezala?

Margoan sartu nahi dut...

Aproba egin nahi dut...

Ausardiaz jantzi eta salto
egingo dut. Bai! Salto egingo
dut.

Banoooooooo! Saltoooooo! ■■■





Udazkeneko denboraldia, hastear

ZINE FORUM

TESTUA: MARIA MAYA MANTEROLA

Udazkena heltzearekin batera, zinema areto konbentzionaletatik kanpo estreinatzen dituzten filmak eskaintzeari ekingo dio Ostarrena Zine Klubak. Astebururoko emanaldiez gain, urriaren 5ean hasi eta Gabonetako oporrak bitarte, bi astean behin ostegunetan gozatu ahal izango dute zumaiarrek zinemaz.

Asteroid city Wes Andersonen filmarekin hasiko dute denboraldia, urriaren 5ean. Filmak kontatzen du nola 1955ean, Asteroid City izeneko AEBetako basamortuko fikziozko hiri batean fenomeno astronomikoak behatzeko eskola-lehiaketa batera bildu ziren herrialde osoko ikasleak eta gurasoak. Konbentzioa modu ikusgarrian etengo dute mundua aldatzen duten gertaerek, ordea.

Joan den urteko film bat izango da bigarren saioan, *Cien flores*, hain zuzen. Genki Kawamura japoniarraren lanak joan den urteko Zinemaldian Zuzendari Onenaren saria eskuratu zuen, eta oroitzapenen



Wes Andersonen Asteroid city filmeko fotograma bat.

indarrean arakaten du, alzheimerra duen ama baten eta haren semearen harremanaren eskutik.

Hiru emanaldi izango dira azaroan: *Las ocho montañas*, *Upon entry* eta *El regreso de las golondrinas*. Jatorriaz hausnartzen du lehenak, mendi artean jaio diren Bruno eta Petro pertsonaien eskutik. Film espainiarra da *Upon entry*, eta "aukeren lurralde" den AEBetara bidaiatzen duten

bikote batek aduanan jasan beharreko prozesua du oinarri. *El regreso de las golondrinas* filma Berlingo Zine Jaialdian aurkeztu zen iaz, eta elkarrekin ezkontzera behartu dituzten bikote baten harremana kontatzen du.

Abenduaren 14an botako dute udazkeneko denboraldiko azken filma: *Una vida no tan simple*. Helduen bizitzako era bakigarri bati buruzko bidaia existenziala da. ■

bertako

igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik/hileko



Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus

Zumaia

10eko esperientzia *gozatu*

URRIAREN 10ETIK 30ERA



GERTU
ZUMAIAN BIZITZEKO AUKERA

Estekari, argalari, baratarri
BIZITZEKO AUKERA

Baratarri
BIZITZEKO AUKERA

ZUMAIAN BIZITZEKO
DA



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



zumaiena

**BERRITZE LANAK GAINDITUZ:
ARKITEKTURA AFEKTIBOA ETA
ERAGILEA ZUMAIENAN**